


A close-up portrait of a woman with voluminous, curly brown hair. She is looking directly at the camera with a slight smile. She is wearing a dark, possibly black, top. Her arms are crossed in front of her, and a wristwatch with a round white face and a brown leather strap is visible on her left wrist. The background is a soft, out-of-focus grey.

Kontxu Odriozola

Pako Aristi

Kontxu Odriozola

Pako Aristi

AURKIBIDEA

BEGIRA NAZATELA	5
TXOKO BATEAN ESERITA	7
ASTE OSOA IRAUTEN ZUEN FILMEAK	9
ALPARGATAK JOSI, BAIKE!	11
BURUTIK JOTA, NOR?	13
ZU ZERGATIK ETORRI ZARA?	15
ESKOLA ETA BIZITZA	18
HAUXE NAHI NUEN NIK!	20
LANGABEZIAREN BENTAJAK	23
HOGEI URTEKO BOLLOA BANINTZ!	25
MARIA LUISA AURKEZTUKO DIZUET	28
MARIA LUISA BEZALAKOA AL DA KONTXU?	31
AKTOREAK KAMARAREN MENDE	34
MAITE DITUGU AKTOREAK?	36
MARIA LUISA HILDA, KONTXU BIZIKO AL DA? . .	38
POLITIKOAK, KONPLIKAZIOAK, KONPONBIDEAK .	41
KONTXUREN SEKRETARIO PRIBATUA	44
ERREFRAUA JAR DEZAGUN HANKAZ GORA	45
KONTXU ODRIOZOLA BESTEEN AHOTAN	47
KARAKTER HANDIKO EMAKUMEA. Pedro Otaegi . .	48
ASPALDIKO LAGUNA. Arantxa Gurmendi	50
NIRE ADISKIDE MINA. Mikel Garmendia	51
UNA ACTRIZ DE RAZA. Roberto Herrero	53
KURRIKULUM BATERAKO DATUAK	55

AURKEZPENA

Azpeitiko Antzerki Topaketak ate ondora datozkigu eta gainera aurretengo honetan edizio borobil bat betetzen dute XX. Edizioa hain zuzen ere.

Aurreko urteko ildoari jarraituz antzerkigintzan aritu izan den, diharduen eta arituko den itxaropenaz, pertsonaia bati omenaldi xume bat egin nahi diogu eta ezaugarri honi Azpeitiarra izatearen ezaugarria gehitu behar diogu. Pista hauek emanik ez da zaila Kontxu Odriozolari buruz mintzo garela asmatzea.

Nork ez du ezagutzen "Maria Luisa Galardi"? Beno Kontxu Odriozola esan beharko genuke baina emakume bikain hau begi aurrean agertu orduko guztioi "Maria Luisa" izena datorkigu burura ziurrenik.

Azken urteotan etxeko hainbat txoko ezberdinetan dugun karratutxoan egunero izan dugu istorio ezberdin batekin, batzutan barrez, hurrena triste eta nola ez askotan bere jenio bizia azalduz. Jakina da ordeak aktorea handi honek Goenkalez gain hainbat paper eta lan ezberdin egin dituela.

Laburpen txiki bat eginez esan genezake, Kontxu Azpeitian jaio zela 1945ean. Aktore izan aurretik irakasle izan zen baino beti ibili izan zen bere artista senari irtenbidea eman nahian. Beste askoren antzera amateur gisa hasi zen eta obra ezberdin eta lan bikain askoren ondoren aski ezaguna bilakatu dela gaur egun ezagutzen dugun "Maria Luisa" izan arte, eta dagoeneko ezin dugu beste "Maria Luisa"-rik imajinatu Kontxuk hain maisuki antzeztzen duena baino.

Oso labur hemen adierazten dizuet nire aurkezpen edo sarreratxoa zeren herritarra dugun emakume handi batetaz mintzo gara. Zerbait gehiago jakin nahi duenak bere ahotik ateratako hotsak Pako Aristiren idatzi bilakatu diren hurrengo orrialdeak irakurtzea besterik ez du.

AITOR GORROTXATEGI LARRAÑAGA
KULTURA ZINEGOTZIA
AZPEITIKO UDALA

1 - BEGIRA NAZATELA

Kontxu Odriozola Azpeitian jaio zen, Eliz kalean, 1945ean. Eta ez edozein egunetan: San Fermin egunekoa baita. Bere haurtzaroaz asko hitz egiten duen pertsona da Kontxu, eta zehaztasun handiz hitz egiten du, gainera. Kastako aktore guztiak bezala, memoria onekoa da, hiztun zorrotza, komunikazioa errazten dutenetakoa.

Aita azpeitiarra zen, baina ama, Ramona Lesaka, Urrestillakoa. Hau lehenbailehen argitzea komeni da: *‘Nigatik esaten dute Urrestilla aldekoa izateagatik edo lotsagabea naizela, baina ez da hainbesterako. Komunikatzeko arazorik ez daukat, eta horregatik izango da’*. Hain zuzen ere, amarengandik jaso zuen Kontxuk laguntzarik gutxiena aktore izateko, baina badakigu gauzak nola gertatzen diren: askotan norbaitek kontra egitea behar izaten dugu geure konbentzimendua orduan eta gehiago indartzeko. Kontxu horietakoa delakoan nago.

Kontxu herriko eskolara joan zen, eta handik Miserikordiako eskolara. Honela gogoratzen ditu urteok: *‘Han mojak fijatu egiten ziren ea zuk kanturako egokitasunik ba ote zeneukan, edo antzerkirako, abesbatza beti edukitzen zuten, maiatza iristen zenean loreak kantatzen ziren, Amabirjiñari bertsoak irakurtzen genizkion aldarean, eta ni harako aukeratu ninduten. Gaztekeraz ziren, buruz ikasita deklamatu behar nituen, zer esaten nuen aztarrenik gabe. Nire lehen aktuaioak horiek dira’*. Kontxuri elkarrizketa asko egin dizkiote egunkari, aldizkari eta telebistan, eta haietako batean hala esaten du lotsagabe haurtzaroaz: *‘De niña, cuando actuaba en las monjas, me encantaba que me miraran’*.

Agian hortik sortzen da aktorearen lehen oinarria: besteen begiratuak bete egiten du haren barrena, besteengan sortzen duen erreakzioak bere lanaren neurria ematen dio, bere burua ezagutzen eta maitatzen hasten da besteek ezagutzen eta maitatzen duten neurrian. Kontxu beti jende aurrean azaltzeko prest egoten baitzen, baina *‘nahi baino gu-*

txiagotan aukeratzen ninduten, zeren kastingak beti egon dira, zuk txiki-txikitatik zain egon behar zenuen ea aukeratzen zintuzten zeozertarako, aukeratua bazinen ondo, ni pozik, bestela itxoin egin behar'.

Ez ziren mojak bakarrik izan Kontxuri antzerkiaren harra piztu ziotenak. Azpeitian bazen beste leku bat: Perez Arregi enparantza. Bertan zeukaten Luistarrek lokal bat, eta han entsaiatzen zuten herriko talde amateurrek antzerkia. Hura zen harrobia. Askotan oso umerik jakiten dugu gure bizitzan zer egin nahi dugun. Lokal hartan jakin zuen Kontxuk zer egin nahi zuen: antzerkia, nola edo hala. Eta antzerkia egin du geroztik. Ez gutxi, gainera.



Dotore asko Azpeitiko Santo Tomasetan.

2 - TXOKO BATEAN ESERITA

Kontxuren aita Felix Odriozola Agirre deitzen zen. Jose Antonio Agirre Lehendakariaren senitartekoa zen. Margolaria zen, marrazkigilea, eta tailagilea ere bai. Kontxuk asko maite zuen. Aita Azpeitiko antzerki talde amateurrei laguntzen ibiltzen zen beti, muralak egiten, dekoratuak, saltsa horiek. Eta laguntzaile nor izango zuen bada? Kontxu. *‘Ni Luisetako lokal hartara joaten nintzen aitarekin, eta hantxe egoten nintzen, eserita, isil-isilik, txoko batean, eta nik han gazteak ikusten nituen antzerkia egiten, eta ikusten nuen baita nola haserretzen ziren, eta batzuk negarrez ere bai, eskandalo batean ibiltzen ziren, oraindik ikusi egiten dut neska bat bere pertsonajea defenditzen, mutilei kontra egiten. Aitak esaten zidan isil-isilik egoteko, eta ni obserbatzen egoten nintzen’.*

Horra aktorearen bigarren oinarria: isilik egon eta begiratzea, bizitzaren taupada daramaten gauza horiek jasotzea, bereganatzea, gero bere erara eman eta agertuko dituenak.

Azpeitian garai hartan kultur ekimen ugari egiten ziren, eta Kontxuk, gaztea artean, zain jarraitzen zuen, *‘zeren haiek hots egin arte zain egon behar zenuen, Peñaforida abesbatzan kantatutakoa naiz, Gipuzkoa mailan asko ibili ginen’.*

Baina zain egoten zen ume hura hazten zihoan, eta gero eta maiteago zituen antzerkiaren trikimailu guztiak. Kontua zerbait egitea zen, entretenitzea, bizitzari pizgarria aurkitzea. Eta publikoaren aurreko aktuazioen zain geratu gabe, antzerkia lagunarteko jolas algaragile bilakatu zen. *‘Eszenarioak ez dit beldurrik eman inoiz. Ateratzerakoan izan ohi den tentsio hori txikitatik bizi izan dut nik, niretzat ez da gauza arraroa eszenariora irtetzea. Neguan, etxean, eskaileretan egiten genuen antzerkia, kantatu egiten genuen, dantza, disfrazatu egiten ginen. Koadrilan ere beti esaten zidaten, hi haizan, imitatu zan Don Lorentzo,*

edo Nartxixa katekistie, bale, egingoiñat ba, eta denak barrez edukitzen nituen´. Gero zezen korrida antolatzen zuten, neskak ´manola´ bezala joaten ziren, mutilak torero moduan, eta beste batzuk zezenarena eginez.

Hala ere, bada Kontxuren pasadizo bat elkarrizketa batean irakurri diodana. Kaleko espaloietan aurkitzen zituen paper guztiak jaso eta irakurtzeko ohitura zeukan. Han aritzen zen ´marca registrada´, ´ingredientes´ eta horrelakoak letzen. Igande goiz batean amak ogi bila bidali du. Kanean zihoala hor aurkitzen du karamelo paper bat lurrean. Hasi da hura irakurtzen, eta, bukatu duenean, despistatuta, karamelo papera bota beharrean dirua bota lurrera. Hor itzuli da etxera, ez ogi eta ez diru, karamelo paper zimurra besterik ez duela eskuetan. Etxekoek ez zioten ezer sinesten, nola bada? Ez dakit antzerkiaz baliatu zen une

hartan bere ama lasaitzeko, baina zerbait beharko zuen.

Horra aktorearen hirugarren oinarria: bere begien aurrean daukan munduarekin ez konformatzea, eguneroko bizitzak agertzen dion egoera nolabait edertu eta aberastu nahi izana, aurkitzen dituen edota eskura uzten dizkieten tresnak erabiliz. Kontxuren kasuan, irakurtzea izan zen tresna horietako bat. Eta beste bat: zinea. Nola ez.



Amona zoriontsuaren paperean.

3 - ASTE OSOA IRAUTEN ZUEN FILMEAK

Haien etxera bi aldizkari iristen ziren: 'Arantzazu', eta 'El ruedo', zezenei buruzkoa, haien aita oso zezenzalea baitzen. Kontxuk buruz ikasten zituen aldizkari horiek, irentsi egiten zituen. Horien ondoan lehengusu batzuk pasatzen zioten 'Fotogramas' zegoen, eta hori izan zen umetan Kontxuren Hirutasun Santua, haren janari intelektuala; aldizkari horiek eta eskolan irakurtzen zuen entziklopedia. Geografia eta historia zalea zen. Beti hamarra ateratzen zuen historian; beti zero matematiketan.

Urrestillara bisitan joaten zenean, eta baserrian, zelaian ardi zaintzen egon behar zuenean, Arantzazuko egutegiko orriak ematen zizkieten irakur zitzan. Harentzat propio gordeak zeuden haien baserrian. *'Letzeko gogoa ikaragarria neukan. Nik ametsa erraza izan dut, imajinazioa eduki dut, eta denak balio zidan mundu bat sortzeko, istorio bat asmatzeko, zer pasatuko litzatekeen imajinatzeko. Nik uste gaur ez ote garen umeak oso matematiko egiten ari, eta imajinazioa mozten, zeren ordu guztietan zerbait jartzen diegu. Guk eskola obligazioa genuen, baina handik irtendakoan bizi egiten ginen, geure mundu bat geneukan, eta mundu hori geure erara antolatzen genuen. Oraingo umei dena antolatu egiten diegu, eta umeak jolas egin behar du, bere lagunekin beste mundu bat asmatu eta antolatu, gaur hori ez dute egiten'.*

Dena den, bere haurtzaroa ez du mitifikatu eta neurritz kanpo ederreksi nahi Kontxuk, kontziente baita gauza onak eta gauza txarrak bizi izan zituela, *'etxean ere ez da dena gozoa izan nik bizi izan dudana, eta ez dut hasi nahi etxean txikitan ikusitako gauzak esplikatzen, baina gozo-gazia izan zen, baina sentimenduz, izaeraz, bizi izan dudana osatutako pertsona naiz'.*

Kontxu beste garai batekoa dugu: eskola amaitutakoan umeak jolaseratzen ziren garaikoa, eta hori eskertzen du. *'Nik ulertzen dut eskolaz aparte bizitzak beste eskola bat ematen dizula, eta hori aktore batentzat oso ona da. Nik aktore bat ikusten dudanean eskolan baka-*

rrik ibilitakoa, eta txiki-txikitatik bere etxean sufritu ez duena, hark pertsonaje bat egiteko orduan beste era batera egingo du, faltako zaio benetakotasuna, indarra, sakontasuna'.

Horra aktorearen laugarren oinarria: sentimenduak ezagutzea, bere baitan errekonozitzea, eta gero atera behar direnean sentimendu horiek zer adierazten duten jakitea. Zineari begira ere asko ikasi zuen Kontxuk bere gaztaro hartan.

Aste osoa zain egoten zen zine parrokiara ikusteko, igandetan, 3/30etako saioan. *'Zinea erderaz zen, eta guk gure bizitza euskeraz egiten genuen, eta ez genuen zinea ulertzen. Bukatutakoan koadrila osoa egoten ginen eztabaidatzen, hura izaten zen gure zine-foruma. Ea nes-*



Sevillanak dantzatzen jakin gabe ere ondo pasa liteke.

esan diola, ba nik uste bestelako... aste osoa irauten zигun pelikulak, hurrengo igandera arte, aklatatu ezinda ibiltzen ginen. Baina azkenerako nik uste denon artean deszifratzen genuela argumento guztia'.

Telebistarik ez zegoen garai batez ari gara hizketan. Nodoak ere zuri-beltzean ziren, eta jende haren bizitza zuri-beltzean gertatzen zela iruditzen zaigu orain, triste samar edo. Kontxu ez zen geldirik egotekoa; hark asmatu zuen, aurkitu zuen bere bizitza grisa edertzeko modua: titiritera egingo zen, eta kito. Berari crabiltzea asko gustatzen zaion hitza da: *'titiritera'.*

4 - ALPARGATAK JOSI, BAIKE!

‘Gure amak oraindik ere ezin du ulertu’, zioen Kontxuk 1995ean Argia aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean. Eta umetan? Nolakoa ote zen amaren jarrera bere alaba marizoro harekiko? Hona Kontxuren hitzak: *‘Aitak beti lagundu izan zidan bezala, amak gaizki ikusten zuen nire zaletasuna. **Hori dana txorakeria da**’, esaten zuen. Debekatu inoiz ez zidan egin, baina haizerik eman ere sekula ez. Ni kantuak ikasten ari banintz, hark esango zuen: **‘Ba, txorakeriatan denbora pasatzen dezu’**. Horiek alferren kontuak ziren bere ustez. Eta gainera, holakoren bat esaten zuenean alboko jendeari begiratzen zion. Eta jarraitzen zuen esanez: **‘Hemen benetako lana egin behar da, ikusten dena, alpargatak josi baike, zeozer baina dirua ematen duena’**.*

Alabaina, Kontxuk zeukan sen hura, garaiko bizitza kaskarra nola-bait gainditu eta ederrago bilakatzeko joera hura, ez zegoen inola ere geldiarazterik. Kantuak, imitazioak, barrealgarako antzezpenak, aldizkariak, zinea... ihesbideak bilatzen saiatzen zen. Horietako beste bat irratia izan zen. Gaur egun ere, gau guztia irratia piztuta egiten du lo askotan, ‘pinganilloa’ belarrrian sartuta. Hori bai, batzuetan buruko minarekin esnatzen omen da. ‘Radioak asko lagundu dit niri beti. Radionobelak eta denak entzuten nituen. Maria Dolores Agirrek edukitzen zuen asteen behin deklamazioko programa bat, hura ere asko gustatzen zitzaidan. Ni radioaren azpian jarrita egoten nintzen, eta igual zitzaidan zein entzun, Radio Nacional, Radio Paris, berdin. Beste tresna bat zen mundu horretatik alde egiteko, aberastu egiten ninduen, emozionatu egiten ninduen, imajinazioa lantzen lagunduko zidala pentsatzen nuen’.

Garai hartan, neska kuadrila hark dena bereganatzen zuen. Ingelesa ere hitz egiten zuten, euren ustez ondo, filmeetako elkarrizketak erre-

pikatur. Zinean ikusitako koreografiak ere muntatzen zituzten, 'Un americano en Paris' filmekoa, esate baterako, hango pauso batzuk errepikatzen zituzten.

'Herri hartan, garai hartan, nik dena falta nuen, nik nahi ez nuena zen hura, nik pentsatzen nuen beste mundu batzuk bazeudela, eta ni haien ametsetan ibiltzen nintzen, baina zeneukanakin jolastu behar zenuen. Oso mundu txikia zen hura'.

14 urterekin bere lehen antzerkia egin zuen: 'Ya lo creo' obra, 'Uste diñat', Lopez Mendizabalena. Neskame batzuen istorioa zen, Donostian markesa baten etxean lanean ari zirenak. Eta edertasun horren bila jarraitu zuen.



Kontxuren begiratu sakon eta zorrotza.

5 - BURUTIK JOTA, NOR?

Begirada bizia dauka Kontxuk ume eta gaztetako argazkietan. Beltzarana zen, arina, bizkorra, alaia. Gerora emakume batek esan zion judua ematen duela, eta hala da. Gaztetan gehiago. Orain Sofia Lorenen antza hartzen ari da, heldutasuna ondo daraman seinale. Baina ez gaitezen aurreratu.

Kontxuk Errezilgo mutil bat ezagutu zuen, Imanol Zinkunegi, eta berarekin geratu zen. Gaur arte. Duela gutxi, senarrak esan zion, gaztelera, agian broma kutsua nabarmentzeko: 'Yo te conocí bonita, luego te he visto guapa, y ahora me pareces hermosa'. Nola ez zen ba maiteminduko horrelako gauzak esango zizkion mutilarekin?

Egunkari batean, hau zioen Kontxuk bere ezkontzari buruz: *‘Nere edadeko emakumeen artean galdetu izan dugu ea zergatik jarraitzen dugun hainbeste urtetan gure senarrarekin. Eta nik, konkretuki, pisa-keta bat egin ondoren zera esaten dut: aiba, oraindik tipo hau lagun bezala oso ona da. Leialtasun fuertea dago gure artean eta hori ezinbestekoa da jarraitzeko. Alde batetik frakaso bat sentitu beharko nuke emakume bezala nere lehen nobio formalarekin ezkondu nintzelako. Baina egia esan, ez dut beste ametsik, eta gainera, okerrago dena, inor ez zait etorri albora nirekin ligatu nahi zuela esanez’.*

Ezkondu, eta, hasiera batean, Azpeitian jarri ziren bizitzen. Kontxuk maisu-ikasketak egin zituen, eta Errenterian ibili ondoren Azpeitiko ikastolan hasi zen lanean. Ikastolan txikiekin egiten zuen lan, beti antzezten eta abesten etengabe. Kontxu beraren seme-alabak ere kantari eta dantzari onenak ziren. Gero, behin Donostian bizi zirela, Axular lizeoan aritu zen. 17 urte egin ditu hiru ikastola horietan. Axularren hasi zen ondo sentitzen, onartua zela sentitzen. *‘Azpeitia zen*

mundu bat beti borrokan ibili behar zenuena, ni gaisotzeraino iritsi nintzen´. Kataluniako eskoletako gauzak ekartzen zituzten, Frantzian erabiltzen zituzten testuak, jokoak, material pedagogikoa sortu beharra zegoen; guraso batzuek onartzen zuten hori, eta beste batzuek ez. Azpeitian jendea beti borrokarako zegoen. Euskara batua zela eta, ´nire gizonaren eta nire kontra kanpaina egiten jardun zuten etxetz etxe guraso batzuek, ezkertiarrek ginela esanez, demoniñoak ginela, zer eta euskara batuaren aldekoak ginelako, por dios!´. Beste ikastola guztietan onartuta zegoena, Azpeitian hala ere ezin sartu. ´Esan ohi da herri txikia inpernu handia dela, ba horixe zen Azpeitia garai hartan´.

Halere, Kontxuk jarraitzen zuen antzerkiarekin harremanetan. Etxean ere, seme-alabek noiznahi ikusten zuten ama mozorrotuta, eta Kontxuren edadeko emakume askok ez zuten ulertzen hori. Azpeitian batzuek ´andre hori erabat burutik eginda dago´, esaten omen zuten.

Baina ez zegoen, ez, burutik eginda. Kontxuk barruan zeukan indarra ez zen asetzen eta kabitzen etxekoandre arrunt baten bizitza normalean. Bera titiritera bat zen, bizimodu aburgesatu batean harrapatua zegoena. Preso dagoenak ihes egitea du amets. Eta Kontxuk ihesaldi ttikiak egiten zituen bere errealitate grisetik. Horretarako mozorrotzen zen. Beste pertsona batzuen itxura hartzen zuen, haien bizipenak bere izaera aberastuko zutelakoan, horrela berak ere bere ingurukoak aberastuko zituelakoan. Horra aktorearen bosgarren oinarria: Itxura aldatu, horrela bizitza beraren funtsa ere aldatuko delakoan, eta besteei erakutsi garena baino zerbait gehiago, ezberdinagoa izan gintezkeela. Denok.

6 - ZU ZERGATIK ETORRI ZARA?

Donostiara joan ziren bizitzera. Kontxuk irakaskuntzan jarraitzen zuen, baina beti, beti antzerkiari zeharka begira bizi zen, umetan mojek aukeratu izateko zain egoten zen ume haren itxaropen eta grina bere-tsuarekin. Imanol, bere senarrak, Herri Irratian egiten zuen lan, eta han umeentzako programak egiten zituzten, besteen artean Pako Sagarzazuk, Txaro Arteagak eta Enkarni Genuak. Gipuzkoako Kutxak haurrentzako programa bat patrozinatu nahi zuen, larunbata goizetan izango zena, eta Kontxuri deitu zioten. Orduan, Kutxaren aretoan ordu-beteko emanaldiak prestatzen hasi ziren, eta gero hura irratiz ematen zuten. Dena prestatu beharra zegoen, gidoiak, esketxak, oso lan polita egiten zutela gogoratzen du Kontxuk.

Hartan ari zirela, bikoizketa eskola bat ireki zuten. Horrekin batera zurrumurru bat zabaldu zen: euskal telebista jarri behar zutela martxan. Kontxu bikoizketara joaten hasi zen. Xabier lete zegoen arduradun, eta galdetu zion Kontxuri: ‘Zu, andereñoa izanda, zergatik etorri zara hona?’ Eta Kontxuk: ‘Hara, gauza bat esango dizut, Xabier, nik antzerkia egin nahi dut Donostian, baina inor ez dut ezagutzen, dauden talde txiki hauetan ez dago sartzetik, ez dakit nondik hasi, baina uste dut bikoizketan zerbait egin dezakedala, nire har hori behintzat lasaituko dut’. Eta hala hasi zen iluntzeetan bikoizketa ikasten.

Hura bukatzera zihoala enteratu zen Antzerti eskola irekitzera zihoaze-la, Euskal Gobernuaren babesean. Hantxe zeukan antzerki eskola bikaina eskura, bere lekua eskainiz, urte askotan edukitako zaletasuna behingoz baretzeko promesarekin. Hantxe ikusi zuen bere bizitzako aukera Kontxuk.

Senarrarengana joan eta galdetu zion: ‘Aizu, Imanol, nire soldatarik gabe bizi al gintezke?’. Kontuak egin zituzten, eta gizonak: ‘Bai, estu baino bai!’.

36 urte zeuzkan Kontxuk, eta hiru ume txiki. Ama Ramona ere beraie-

kin bizi zuten Donostian, gaur egun bezalaxe. Eta soldata polita zeukan. *‘Nik zer esan behar nion nire ume txikiei, eta gure amari? Pentsa haren mentalitatea nolakoa zen, zer esango zituen niregatik!’*, dio gaur egun.

Antzertiko sarrera-azterketara aurkeztu zen, hartu egin zuten, eta orduan utzi egin zuen lana, utzi egin zuen soldata polita, eta han joan zen buru-belarri eskola ikastera berriro, 36 urterekin. Bere adineko gutxi zegoen: Mikel Garmendia, Felipe Barandiaran, Arantxa Gurmendi... Beste guztiak 20 urte inguruko gazteak ziren.

‘Ez naiz behin ere damutu ikastola laga izanagatik. Orain da eguna ikusten dudana nire lagunak leher eginda daudela, ikastolakoa lan gogorra da oso, segurua bai, eta antzerkia ez da segurua, baina antzerkia interesgarriagoa da, gehiago ematen du. Urte honetan lana badaukazu, gero hurrengo bi urtetan igual ez daukazu lanik, baina beno, merezi du’.

Hala ere, hasieran bidea ez zuen hain garbi ikusten Kontxuk. *‘Eskolak jarraipena izango ote zuen errezeloa bageneukan. Han nengibilela muntaietan parte hartu nuen. Hiru urte egin genituen, eta handik irtendakoan ba produktora batek, edo besteak, edo antzerki talde batek eskaintzen zizuten lana, eta lana, gehiago edo gutxiago, beti sortu izan zait. Bizitza beste ikuspegi batetik erakusten dizu horrek. Borroka egin behar duzu ikastolan baino gehiago, baina ardura zeurea da bakarrik. Ni mundillo honetan sartu nintzenean, esan nuen, ba, ni ondo bataiatuta nator ikastolako gerra horretatik, baina antzerkia diferentea da, hor borroka zeurekin bakarrik daukazu, pertsonajea ahal den ondoena egiteko, lana ondo egiteko, demostratzeko, eta jendeak esan dezala, jo, ze ondo egiten duen hori’.*

Apustua egina zegoen. Salto latza. Lanpostua utzi eta hilean 20.000 pezetako beka batekin bizitzera pasa zen 36 urteko emakumea. Horra aktorearen seigarren oinarria: Ausardia, eta bere lana beste gauza guztien gainetik maitatzea.



Kontxu bidaiari haundia izan da. Guatemalan ageri da.



Bere bizitzan egin zuen lehen antzerki obran.

7 - ESKOLA ETA BIZITZA

Oraindik ere begiak pizten zaizkio Kontxuri Antzertiko urte haiek gogoratzean, aktorearen lanaz hitz egiterakoan emozionatu eta sutsuki mintzo den bezala. 'Hau dek mundu apasionantea eta ederra', esaten zion bere buruari eskolatik etxera bueltatzen zenean. Gazteen artean zebilen, gozo, eszenak prestatzen, binaka jartzen zituzten eta aste osoa zeukaten Henrik Ibsen idazle norvegiarraren obra bateko zati bat prestatzeko, edo Tennessee Williamsena, edo egile errusiarren batena. Eurak egiten zuten atrezzoak, eszenaratzea, dena, eta hori irakasleari erakusten zioten, eta honek beharbada esango zien, '¡Huy, eso está muy verde, no tienes ni la mitad del personaje!', eta segi lanean.

'Ez zen Azpeitin zuzendari batek esaten zizula, bueno, zu orain joan hemendik hara eta halako esan... Nik askotan zergatik egin behar nuen hori galdetzen nuen, zeren bizitzan egiten ditugun gauza guztiak justifikazio bat daukate, helburu bat. Gu beti zeozarren nahian gabiltz, pertsona bezala, eta pertsonaje bat egiterakoan motibazio hori erakutsi behar da, pertsonaje horrek dauzkan arrazoiak gauzak egiteko. Hori garbi daukazunean, gero berak erakusten dizu nola jokatu behar duzun. Sinplea da, baina era berean zaila da'.

Horra aktorearen zazpigarren oinarria: Eskola eta bizitza nahastea. Teknika eta esperientzia. 'Antzertik erakutsi zidan nire barruan zeuden sentimenduak bilatzen, eta horiek dauzkat nik blist, segituan agertzen direla. Nik pertsonaje bat egiterakoan badakit zein ate ireki behar dutudan pertsonaje horretara iristeko. Bizitzan gauza dexente pasa zaizkit. Barretik negarrera segituan pasatzen naiz, zergatik? Ba bizitzak susto asko eman dizkidalako. Zuk buru ona badaukazu sentimendu horiek guztiak gorde egiten dituzu, eta gero, denborarekin, herramienta bihurtzen dira, badakizu horiek nola erabili. Bizitzak eman dizkizun herramientak dira, eta gero eskolan ikasten duzu horiek erabiltzen'.

Kontxu gisa honetan hizketan hasten denan, inspiratuta dagoenean, ez da geratzen. Nik ere ez diot hitz jario ederra eten nahi. *‘Aktorea bera konplikaturik da. Ni, boladatan, oso bakarrik sentitu izan naiz. Aktorea beti bakarrik dago. Niri askotan gertatu zait, jendea inguratuta zaude baina inorekin ez daukazu konfiantzarik. Ni arraroa ote naizen pentsatzen dut. Baina ez, beste aktore bat irekitzen zaizunean ere antzeko gauzak ikusten dituzu. Aktore bat larrutsik jartzeko ez du ezer behar askotan. Nik, beti, neure burua kaja huts bat bezala imajinatu izan dut. Aktoreak kaja huts bat izan behar du. Orduan zuzendari bat etortzen bada proiektu batekin, nik kaja irekiko dut eta hark sartuko du nire barruan berak nahi duena. Nik nahi dut ikustea nire aurrean nirekin zer egin nahi duen argi daukan norbait, eta saiaturiko naiz ailegatzen horretara, eta ezin badut, neure proposamenak egingo dizkiot, eta azkenean iritsiko naiz tipo horrek nahi duena ematera’.*

Gauza ederragorik ez omen dago, dio Kontxuk: Zurekin zer egin nahi duen garbi daukan zuzendari batekin lana egitea baino.



‘Gaztetan modeloak bezala posatzen genuen’.

8 - HAUXE NAHI NUEN NIK!

Antzertik aurrera egin zuen, eta Kontxu bere lekua aurkitzen ari zela sentitzen hasi zen. Handik bizi zitekeela baieztatzea baino, garrantzitsuagoa izan zen gustura sentitzea. Barneko pozak diruak ematen ez duen betetasun bat sortzen baitu.

‘Ni Azpeitin egon nintzenean, banekien gehiago egin nezakeela, eta Antzertin aurrera gindoazen bezala, pentsatzen nuen, ea hauxe den nire lekua. Baina, segurua mundu honetan ez dago ezer, eta lanarekin ez geneukan segurtasunik. Han sentsazio berriak sentitzen hasi nintzen. Txaloak aspalditik ezagutzen nituen, batzuetan fuertetxo, bestetan moteltxo, txaloak egiten zizkidaten, baina hau diferentea zen. Nik beste era batera egiten nuen lana orain, asmatu izango dut, esaten nuen neurekiko’.

Prestatu zituzten antzerki obrekin kritika onak jasotzen zituzten, nahiz eta jende gutxi joan obrak ikustera. Obra batek noiz funtziona dezakeen eta noiz ez antzematen ere ikasi zuen. *‘Mundillo honetan gezur asko ibiltzen da. Estreno baten ondoren jende guztia zoriontzera dator, baina urteekin ikusi dut hori ez dela horrela, zuk badakizu hirugarrengo emanaldian obra hori gustatuko den edo ez, jendea etorriko den edo ez, zoriontze hura benetakoa zen edo ez. Obra bat apustu bat da. Gauza askok batera elkar lotu behar dute, eta hori ez dago zure gain bakarrik. Askotan gertatu zaigu, kasting zoragarria egin, nahiko denbora eduki prestatzeko, musikorik onena ekarri, zuzendari ona eduki, gidoia, baina zerbaitek huts egitea, ez funtzionatzea obrak. Zer pasatzen da? Hor misterio bat dago. Gauza bakoitzak bere momentua dauka, eta momentu horretan osagai askok ikutu behar dute elkar’.*

Antzerki obra bat prestatzea nolakoa den esplikatuko digu segidan Kontxuk, barru-barrutik, berak ezagutu izan duen bezala. *‘Autorea aztertu behar da lehenengo, zer esan nahi duen, nolako pertsonajea nahiko zuen. Bestea da zuzendariak egiten duen aukera, igual ez du*

nahi autorea errespetatzerik. Gero zure mugimenduak prestatu behar dituzu, zure pertsonajearen marrazki bat. Horrek ondo enkajatu arte oso gaizki pasatzen dut, baina behin enkajatu duenean, lehen emanaldiak egin ditugunean, eta ikusten dudanean nola resultatzen duen, eta nola ez, hori gertatzen denean, orduan interesa galtzen hasten naiz. Grazia joaten hasten zait. Hori askotan eztabaidatu dut beste aktoreekin. Emanaldiak egiten jarraitzen duzu, noski, eta egun hartan dena ematen duzu. Baina lan horren zati interesgarri bat, prestatzearena, ja bukatua dago niretzat. Ikusleak ez du hori nabaritzen, ze nik betiko entusiasmoarekin, betiko zehaztasunarekin eta arreta guztiarekin egiten dut'.

Kontxuk egin dituen antzerki obrarik nabarmenenak hauek dira: 'Troiarrak', 'Aspirina para dos', 'Pipin', 'Un tranvia llamado desco'... 'Pipin'ekin Madrilera joan zen aktuatzeri, 'Aspirina para dos'ekin, berriz, Avilesean izan ziren, Galizian, Almerian. Esperientzia gogorra iruditu zitzaion. 'Horrela ateratzea niri astuna egin zitzaidan, tristea da, hoteletan lo egiten duzu, bakarrik sentitzen zara, lanerako ordua noiz etorriko egoten zara, lanean ari zaren denbora horixe izaten da ederrena, gero bukatuta ohera joaten zara, hurrengo egun guztia libre daukazu, harik eta emanaldiaren ordua ailegatu arte'.

Egin dituen antzerkiei buruzko oroitzapen onak dauzka orohar. 'Troiarrak tragedia bat zen, han testua landu behar zen, esaldien esanahi sakonak ulertu, antzerkiaren oinarriak hor daude, antzerkia nola egin behar den ikasteko aproposa da. Aspirina para dos komedia zen, eta oso polita. Pipin musikala zen, kanpoko autoreak ziren denak, baina niri lan guztiek balio izan didate ni osatzeko. Tragedia egin nuen eta gustatu egin zitzadian; komedia egin nuen eta baita ere gustatu egin zitzaidan'.

Obra askotan Mikel Garmendiarekin egin du topo Kontxuk. Adin berekoak izanik, zuzendariak bikoteka jartzen zituen askotan. 'Baina Mikelek nik baino lan gehiago egin du antzerkian, eta zinean ere bai'.

Hona airean zerbait esan nahian bezala geratzen diren esaldi horietako bat. Mikeli, eta beste inori ezer kendu gabe, Kontxuk gogoan du Jose Pedro Carrion, Antzertiko irakasle batek esan ziona: 'El caso es que las mujeres son mejores actores que los hombres. ¿Por qué será?'. Kontxu saiatu da erantzun bat aurkitzen kontu zahar horri: *'Emakumeak gehiago gara, eta pertsonaje gutxiago dauzkagu. Gizonek, hainbeste lanik gabe errazago lortzen dute paper bat. Obra batean lau gizon eta bi emakume badira, bi leku horiek lortzea zailagoa da, orduan gehiago demostratu behar duzu, lana hobeto egin behar duzu. Emakumeak gure pertsonajeak gehiago landuta ibiltzen garen errezeloa daukat. Izaeraz ere diferenteak gara, obserbadorea-goak gara, sufritu eta isiltzen ere gehiago dakigu'.*

Agian horregatik, eurak antzerki obra bat idazten hasi zirenean, bi gizonezko eta bi emakumezko sartu zituzten pertsonaietan. Eta berdintasuna erabiliz, geroztik euskal antzerkigintzan parekorik lortu ez duen hito bat sortu zuten: 'Ama Begira Zazu'.



Hemen 16 urte dauzka Kontxuk.

9 - LANGABEZIAREN BENTAJAK

Kontxu Odriozola eta Elena Irureta langabezia zeuden garai hartan. 1986 inguru zen. Antzertin elkar ezagututa, lagunak ziren. Antzerkian geldialdi luzeak izan ohi dira lanik gabe. Obra bat prestatu eta, agian, 20 emanaldi eskaini eta ez da eskaera gehiago etortzen, eta hor amaitzen dira obra horrekikoak.

Behin elkarri esan zioten: *‘Hemen zeozer asmatu behar diñagu geuk, parre egitekoa, formato txikikoa, herriz herri ibiltzeko modukoa’*. Euskeraz izango zen, baina erderaz hitz batzuk sartu behar baziren sartuko zituzten prolema-rik gabe. Euskal Herrian gisa honetako obra batentzat lekua bazegoela uste zuten, aurrez inork ahaleginik egin ez bazuen ere. Beti kanpoko autoreen obrekin ibiltzen ziren. Eta hala ere, jendeak barre egiten zuen. Beraz, euskal umorea landuz, eta euskal gizonak eta andreak nolakoak diren jakinda, funtziona zezakeela uste zuten.

Ordurako Kontxuren esperientzia ez zen nolanahikoa. *‘Antzerkian inoiz ahaztu behar ez diren hiru pauso daude: presentacion, conflicto y desenlace. Beti izaten da ederra aurkezpena luzatzea piska bat, konfliktoa gogorra egin, eta desenlazea motza, jendea ustegabea harra-patzeko. Guk nola ez daukagun ahalmenik obra handi bat egiteko, ba esketx laburrak egiten hasi ginen. Zortzi esketx egin genituen’*.

Arratsaldetan biltzen ziren Kontxu eta Elena, egunean pare bat orduz edo. Pertsonaiak sortzen zituzten, esketxak, horietako asko bota egiten zituzten, besteak gorde eta ondu. Azkenean 22 pertsonaia sortu zituzten, eta horiei gorputza emateko lau aktore: Kontxu Odriozola, Elena Irureta, Mikel Garmendia eta Jose Ramon Soroiz. Zuzendaria Eneko Olasagasti izan zen. Produktorea Kontxuren senarra izan zen, Imanol Zinkunegi.

‘Gogorra izan zen, baina lehenengo momentutik ikusi genuen funtzionatzen zuela, jendeak tripak botatzen zituela’.

Inguruko jendea inplikatu zuten, senarrak, lagunak. Kreditu pertsonalak atera zituzten Mikelek, Elenak eta Kontxuk, eta martxan jarri

zuten obra. Kobratzen zutena furgoneta eta ekipoa ordaintzen joaten zitzaien hasieran, harik eta eskaera asko zeukatela ikusi zuten arte. Orduan 'cacheta' igo egin zuten.

Obraren historia ezaguna da. Errezilen egin zuten aurrena, 'Loidi Azpi' baserrian. Han baserritarrak 'ku-ku-ku' barrezka ikusi zituzten. Gero Zestoan eman zuten, eta jendeak berdin egiten zuen barre. Euskal Herri osoa pasa zuten. 200 emanaldi urtebetean. *'Herri txiki askotara iritsi ginen, behin ere antzerkirik ikusi ez zuten lekuetara, egiteko lokalik ere ez zeukaten lekuetara. Baliarrainen, adibidez, arkupe batzuetan egin genuen. Gazteak kotxeak hartu eta baserritarrak ekartzera joaten ziren, eta antzerkia amaitu ondoren berriro baserrietara eramaten zituzten'.*

Pertsonaia sinpleak, zuzenak, euskal izaerarekin oso lotuak, euskaldun jendea euskaldun jendeari barre egiten, kanpoko interferentziarik gabe... hona 'Ama Begira Zazu'ren arrakasta esplikatzeko klabe batzuk. Dena den, geroztik egin diren saioek ez dute funtzionatu. Hona berriro arrakastaren misterioa.

Eta horra aktorearen zortzigarren oinarria: kanpotik lanik ez badator, nork bere barruan gaia aurkitu eta kanporatu.



Singapurren familia osoa: Kontxu, Imanol senarra eta hiru seme-alaba.

10 - HOGEI URTEKO BOLLOA BANINTZ!

Kontxuk gaztetan hainbeste miresten zuen zineak ez du maite izan Kontxu. Ez dugu apenas pantaila handian ikusi. Oso gutxi. Ez diote paperik eskaini. Hau zioen Kontxuk, duela urte batzuk, gaztelarazko 'Etapa' aldizkarian: 'Todos los actores sueñan con ver su cara en la gran pantalla que es el cine, pero eso es casi imposible. Yo daría cualquier cosa por trabajar en el cine. El teatro es un amor verdadero; el cine es lo que te puede llevar al cielo; y la televisión te hace popular cien por cien'.

Hiru filmetan hartu du parte Kontxuk: 'Hamaseigarrenean aidanez'en, 'Albaniako Konkista'n eta 'Crónica de las guerras carlistas'en. Azken bietan sekundarioa zen, eta 'Hamaseigarrenean aidanez'en protagonista, Mikel Garmendia eta Felipe Barandiaranekin batera.

'Zinera berandu iritsi naiz, urte gehiegirekin. Zinean sartzeko gazterik hasi behar duzu. Kastingetan beti gazteak hartzen dituzte, eta zaharrak sekundarioak izaten dira, eta zaharrak hartzekotan izen handia daukatenak hartzen dituzte, eta nik ez daukat halako izenik. Niri gustatuko litzaidake zinean lan asko egitea, dudarik gabe, baina eskaini izan didatenean izan da agertu eta egunon esateko. Ni hori egitera ez noa, frustrantea da niretzat. Papertxo askori esan diot ezetz. Aktore nagusiak kanpotik ekarri, eta gero papertxoak eskaini guri? Ez, ez, eta kitto. Deitzen didate eta galdetzen diet ea zenbateko lana daukadan, eta egun batean erraz egingo dudala, hori ez da paper bat eta ez ezer. Zergatik joango naiz txorakeria horiek egitera?'

Hala ere, zinearekin daukan frustrazio eta guzti, ez du ahazten beste alor askotan izan duen zortea. 'Nik pertsonaje ezberdinak egin ditut, kantatu egin dut, aktuatu, pertsonaje koitaduak egin ditut, edo marizikin bat izan behar bazen ba horixe, eta moja izan behar banuen ba moja, hori da aktore batek eduki dezakeen erregalorik handiena. Ni

lan horiek egitera iristen naizen bitartean aberatsa sentitzen naiz. Ez dudala lortu errekonozimendu bat Espaina mailan? Beno, zer egingo dugu ba. Nik ezagutu ditut makina bat aktore onak behin ere ezer egitera iritsi ez direnak, ez diotelako aukerarik eman. Hau basamortua da batzuetan. Jende asko dago balio duena baina ez duena aukerarik izan. Horregatik ni ez naiz negarrez hasiko’.

Hala ere, Kontxuren hitzik gogorrenak zinearen gaia aipatuta datoz. Antzerkiarekiko agertu duen lilurarik eta maitasunik ez dago hemen. Aktore eta produkzio enpresen arteko harremanak ere nahiko garratz ageri ditu. ‘Mundu hau oso gogorra da. Hemen mafia txiki askok funtzionatzen dute. Ondo kokatua ez bazaude, iluntzetan ez baduzu hori lantzen... Nik uste niri deitu didatenean lan bat egiteko izan dela, nire beharra zeukatelako, baina ez da izan erreguka ibili naizelako, edo pelotea egiten, wiskyak edatera gonbidatzen inor, ez naiz igurtzi eta igurtzi ibili. Eta hori asko dago mundu honetan. Edo ‘aste bukaera bat pasatzera etorri zaitez nirekin’, esaten dizute, edo ‘te invito a cenar’, hori beti egon izan da’.

Egoera horren aurrean edadea bere alde izango zuela aipatu nion, zinera 40 urteren bueltan iritsi zelako. ‘Kontu horietan nire alde izan da ni hogeit urteko bollo bat ez izatea. Niri galdetu izan didate ea gizonarekin ondo arreglatzen al nintzen. Alde horretatik errespetu gehiago izan dut nik. Nik ezagutu ditut neskak, 18 edo 19 urtekoak, Madriletik buelta egin dutenak, esanez ‘yo me he dejado hacer de todo y no he conseguido nada’. Hori oso gogorra da’.

Hala ere, Madril ezinbesteko jomugatzat dauka Kontxuk zinearen munduan sartu nahi lukeenarentzat. ‘18 urteko neska batek Madrileko abentura pasa beharra dauka, hemen geldituta ez daukalako ezer’. Besteak beste euskal zinema, bere ustez, ez delako existitzen. Eginahalak egon ziren, ‘Hamaisegarrenean aidez’, ‘Zergatik panpox’ eta filme haiekin, bertako testuak ziren, bertako argumentuak, baina

gaur egun Madrileko enpresek kolonizatuta gauzkatela uste dut. *Hemengo filmetan ere, paper nagusiak Madrileko jendeari ematen zaizkio. Hemengo dirua Madrilera doa. Horrek tripak aztoratzen dizkit. Niri esaten badidate 'Airbag' zine vasco dela, barre egiten dut. Edo 'Perdita Durango'. Euskal labela daukan zinerik ez dago gaur egun. Irlandako zineak labela daukan bezala, edo Noruegakoak. Zuk ikusten duzu filme noruego bat, eta badakizu hango zerbait ikusten ari zarela, industria txikia izango da baina zer nolako filmeak egiten dituzten'.*



Greziara egindako bidai batean.

11 - MARIA LUISA AURKEZTUKO DIZUET

Lehengoan gizon batek kalean ikusi zuen Kontxu, eta zera bota zion: 'Zuk semeari utziozu bakean etxetik joaten. Horrelako seme jatorra tokatu eta kontzientzia txarra sortarazten ari zara ama bezala'. Eta lasai geratu zen.

Eta beste batek duela zenbait denbora: 'Aizu, Maria Luisa hil egingiten al da?' Eta Kontxuk: 'Nork esan du hori?'. Zabaldua zegoen nonbait. Kontxuk: 'Nik kontratua ekainera arte daukat eta ez naiz hilko'. Gizona berehala joan zen etxera emazteari esatera, lehengo astetik izugarritzko depresioak jota baitzegoen.

Duela gutxi gutun bat jaso du Miramonen. Gutun asko iristen dira bertara, batzuetan Maria Luisa jarrita, bestetan Kontxu. Hau zioen gutun horrek: 'Ni soltera naiz, eta eskerrak emateko idazten dizut, zeren nire familiak ni erotzat hartzen ninduen, zeren zuk loreekin hitz egingen duzun bezalaxe nik ere beti hitz egin izan diet nire landareei, eta etxeokoek ni erotzat hartzen ninduten, baina orain beste era batera begiratzen didate'.

Herriren bateko jaietan eta askotan etortzen zaizkio mutil gazteak, esanez: 'Segi segi holaxe, zu bezalako emakumeak behar ditugu Euskal Herrian'. Eta Kontxuk igual erantzuten die: 'Zuek ere ikusiko duzue ni bezalako bat arrimatzen zaizuenean eta etxean lotuta jartzen zaituztenean'.

Kalean emakume batek geratu zuen, begiak zabal-zabal eginda: 'Aiba, cómo te pareces a Maria Luisa'.

Beste etxeoandre batek esan zion: 'Zuk lortu duzu orain arte gurean inork lortu ez duena, 9'etan denok elkarrekin afaltzea Goenkale ikusiz'.

Tikal-en, Mexikon, gidari turistiko batek berebiziko sustoa eman zion. Han zihoazen taldean, eta gidariak bat-batean, oihuka: 'Conmigo viene una actriz, ¿Quien es?'. Izan ere, Gasteizko batek ezagutu egin zuen Kontxu eta gidariari esan zion.

Iaz telefono dei bat izan zuen:

-Bai, esan?

-Arratsaldeon, Maria Luisa. Beno, nik Maria Luisa deituko dizut, zure benetako izena ez dut eta gogoan. Begira, barkatu molestatzeari, zuk ni ez nauzu ezagutzen baina nik zu asko. Ni Joxepa naiz, Mendaroko Jubilatutik deitzen dizut.

Gu egunero kontu-kontari andre koadrila bat biltzen gara, eta gaur eztabaida bero bat izan dugu, eta kontua argitzeko onena zeuri zuzenean galdetzea izango dela pentsatu dugu. Aizu, Arralde non dago? Badakigu Bizkaian dagoela, mapan begira ere ibili gara, baina ez dugu aurkitzen.

-Lasai Joxepa, honezkero berrogei aldiz galdetu didate gauza bera. Arralde ez da existitzen. Ipuin hutsa da, gezurretazko herri bat.

-Bai zera! Zu bai ari zarela gezurretan! Eta botika hori? Eta Boga-Boga? Eta Hortentsiren kioskoa?

-Begira, Joxepa, Boga-Bogako zutabeak kartoizkoak dira. Botika egur-txapa pintatua da, eta kioskoa, berriz, leiho zahar bat da, pareta batekin. Baina hau entzun ondo, Joxepa: Arralden benetako gauza bakarrak txakolina eta txakolindegia dira, besterik ez.

-Ene ba. Eta apaiza? Apaiza ere gezurretazkoa al da?

-Ai, Joxepa, nik esango banizu Don Luis nolakoa den! Hobe izango dut isiltzea.

Istoria hau, zertxobait apainduta, Txakolinaren tenporada hasierako pregoian irakurri zuen Kontxuk. Baina gertaera ez zen gezurra. Mila horrelako izan ditu Kontxuk urteotan.

Kontxu Maria Luisarekin bizi da, estu-estu biak elkarrekin. Eta jendeak nahastu egiten ditu. Goenkalen hastea planteatu ziotenean lanik gabe zegoen orduan ere. Antzerki obra baterako kastingean ez zuten hartu, eta beste ezer ez zeukalako, gogo handirik gabe, Goenkalen hasi zen. Lehen bileretan, lehenengo gidoiak hartu zituztenean eskutan, esan

zuen: 'Lasai lagunok, ze Gabonetako denok etxean gara, honek ez du resultatuko, honek ez dauka ez hanka eta ez buru, honek ez dauka irau-teko batera itxurarik'. Gabonetarako berriro lan bila hasi beharko zuela pentsatu zuen.

1994. urtea zen.

2003. urtean ere oraindik Maria Luisaren haserrealdiak, egosgorke-riak eta gora-beherak ikustekotan gara.

Kontxuk etorkizunari tankera emateko gehiegi ez ote duen balio iruditzen zait.



Brasilen, kapitainaren ondoan, mareatzeko beldurrez.

12 - MARIA LUISA BEZALAKOA AL DA KONTXU?

Hainbatek galdetu dit hori Kontxu elkarrizketatzera nindoala esaten nuenean: Kontxu zer da, Maria Luisa bezalakoxea, ezta? Hona Kontxuren erantzuna: *‘Ni holakoa banintz, pentsatzen duen guztia esaten duena, ez dago kristaurik ni agoantatuko nindukeenik!’*

Bera ez da horrelakoa, baina identifikazioa sortzen duen pertsonaia bat egin du. Jende askok esaten dio Kontxuri: ‘Nik badut suegra bat holakoxea’, edo ‘Ene, gure etxean ere badago Maria Luisa bat’, edota ‘Nik badaukat koinata zu bezalakoxea’, alegia, Maria Luisa bezalakoxea.

Horra aktorearen bederatzigarren oinarria: pertsonaia sinesgarriak egitea, gizarteko arketipoak jasotzea, identifikazioa sortuz.

Kontxu ez zen konbentzimendu handiarekin hasi Goenkalean. Bi lan eginak zituen ordurako telebistan, ‘Herriko Plaza’ eta ‘Flamingo Berria’, eta erreta zegoen. Antzerkia egin nahi zuen. Orduan ari ziren ‘Mephisto’ obra prestatzen. Castinga osatuta zeukaten, baina hala ere proba bat egin zioten Kontxuri. Deituko ziotela. Bitartean Pausokakoak, Goenkale prestatzen ari zen produktorakoak, deika zeuzkan. Baina Kontxuk esana zien: ‘Ni antzerkian hartzen banaute ahaztu nirekin’.

Antzerkitik deitu zioten ezezkoa emateko. Orduan, Kontxuk Pausokakoei deitu zien derrepente. *‘Derrigorrean hasi nintzen. Zuk lana egin nahi duzunean, txarrena da aukeratzeko beste ezer ez edukitzea. Zuk baldin badauzkazu telesail bat eta bi antzerki obra mahai gainean, ba aukeratzen duzu. Nik telebista ezagutzen nuen lehendik, eta ordaindu ere, ez dute jendeak uste bezainbat ordaintzen. Antzerkian, berriz, pertsonaje polit bat emanez gero, zapla hartuko nuke bi aldiz pentsatu gabe, baina holakorik ez dago hemen. Goenkalen sartu nintzen etxean gelditu baino lehen edozer gauza hobe delako. Goenkalen ari nintzela eskaini izan dizkidate pare bat antzerki lan, baina niri zaila egiten zait bi lan antolatzea, batean murgilduta banago ezin dut beste batean sartu’.*

Gogo handirik gabe hasi bazen ere, denborarekin Maria Luisa maitatzera iritsi da. Errekonozimendurik handiena eman dion pertsonaia da. Eta hainbeste urtetan Maria Luisari aurpegia, ahotsa, jenioa eta atsekabez eta oinazez betetako begiratu hori jarri ondoren, ikusleentzat bat eta bera bilakatu dira aktorea eta pertsonaia. Alabaina, ez da lan erraza izan Kontxurentzat Maria Luisa sortzea. Askotan sinpleenak diruditen gauzak baitira gehien kostatzen direnak. Maria Luisa ikusita, inork ez daukagu zalantzarik: Horrelaxe behar du emakume horrek. Baina horretara iristeko, ordea, Kontxuk lan asko egin du. *‘Maria Luisak azkar hitz egiten du, dena segurtasunarekin esaten du, egia balitz bezala. Horrek esan nahi du testua zeharo gaindituta eduki behar duzula, gauzak dudarik gabe esan behar dituzu, eta horretarako zuk testua buruan eduki behar duzu aita gurea bezala, ondo estudiantuta. Pertsonaje gris eta epel bat egin behar baduzu, ematen dizu aukera zalantzarekin hitz egiteko, etenaldiekin eta abar, baina pertsonaje energiko bat egiteko zalantzarik gabe hitz egin behar duzu. Segituan antzematen da aktore bat noiz ari den asmatzen, edo testua gogoratzen esan aurretik, eta hori ezin da egin. Maria Luisa baino pertsonaje errazagoak asko egin ditut, energia erdiarekin. Maria Luisarekin leher egiten dut, hustu egiten naiz’.*

Eta ez da testua bakarrik. *‘Nik klabe batzuk ematen dizkiot ikusleari. Maria Luisak azkazalak zorrozten ditu paparraren kontra borrokarako prestatzen denean, edo gezurretan ari denean belarri atzeko ilea mugitzen du. Keinu horiek ikusita jendeak badaki, automatikoki, zer gertatzen den. Nik ezer esan aurretik, jendea ari da pentsatzen: ‘A, orain gezurretan ari da’, edo ‘A, orain egundokoak esango dizkio’.*

Beste ezberdintasun bat badago telebista antzerkia baino nekagarriagoa egiten duena. Antzerkiak gauza bat dauka ona: behin aktoreak testua ikasten duenean, hura errepikatu besterik ez dauka emanaldi

guztietan, energiarekin eta gogoarekin. Goenkalen, ordea, beti testu ikasten. *‘Zapatua bakarrik edukitzen dut libre. Igandean asteleheneko atalak ikasi behar. 24 ordu honentzako bizitzen pasatzen ditut nik, eta gainera, testua ikasi gabe badaukat, ongi mamitu gabe, ezin dut lorik egin. Pedro Otaegiri ere horixe gertatzen zaio. Berak esaten du: Hau den marka, batzuek erdia ikasita ere ederki joaten ditun grabatzera. Hori ez da norberaren nahia. Garen bezalakoak gara eta kito’.*

Kontxuk langile fama dauka bere ‘gremioaren’ barruan. *‘Hori seguru dakit, zeren denek esan ohi didate, eta denak gezurretan ez dira ariko’.* Baina langile izateaz aparte, oso kritikoa da telebistan dagoen lana egiteko moduarekin.



Azpeitiko euskal jaietan pinporoxa asko.

13 - AKTOREAK KAMARAREN MENDE

Goenkaleko atal bat grabatzen ari dira. Errealizatzailleak esaten dio: 'Me conviene que te sientes aquí'. Maria Luisak, ordea, ez dauka inongo arrazoirik hara joateko. Errealizadoreak berriro: 'Sí, pero a mí me interesa'. Orduan Kontxuk arrazoi bat asmatu beharra dauka pertsonaia hara joateko. Mantal batekin lor dezake hori. *'Hasieran mantala jantzita daukat. Gero han utziko dut, errealizadoreak nahi duen lekuan, eta horrela, amorruearekin, azkenean hara joango naiz mantala hartzera eta han bukatuko dut esaldia. Mantala hartzeko helburuearekin joango naiz hara'.*

Aktuazioaren 'A,B,C'a, nolabait esateko, hau da: eszenan sartzeko arrazoia, zer nahi duen pertsonaiak, eta zer lortzen duen. Errealizatzailleak, askotan, irudi politak besterik ez dituzte buruan.

Aktuazioaren barruko trikimailuak dira, baina gauza sakonagoen erakusle direlako ekarri ditut hona. *'Kamararen mende gaude. Aktoreak inportanteak bagina, gure lana aintzakotzat hartuko balitz, makinak gure arabera mugituko lirateke, baina ez, gu ari gara makinak zerbitzen, eta horrek izorratu egiten zaitu, baina hori da telebista. Han kamarak ez dira mugitzen. Errealizadoreak esaten dizu zein kamarari begiratu, eta azkenean dena mekanikoki egiten duzu, eta hori faltsua geratzen da. Hori da telebistako morrontzetako bat'.*

Morrontzetako bat esaten duenean, gehiago ere badaudela esaten ari da Kontxu. *'Goenkale produkzio korala da, pertsonaje fijoak daude, eta gero haien lagunak, sekundarioak, eta figurante pilo bat. Baina beste batzuek erabakitzen dute zurekin zer egin, produktorak erabakitzen du. Nahiz eta gidoilariak esan 'ez, ez, pertsonaje hau bide honetatik eraman dezakegu', tristea da baina hala da, produktorak erabakitzen du zer egin. Garbi dago; zuk telebistan pertsonaje horrekin saltzen ez baduzu berehala hilko zaituzte, edo kanpora bidaliko zaituzte abioian sartuta, eta akabo zure pertsonajea'.*

Egoera honekin alderatzeko, beste esperientzia interesgarri bat izan zuen Kontxuk: Telecincon ematen zuten 'Medico de Familia'ko atal bate-

an agertu zen. Ana Duatoren ama zen, baina Ana ez zen Globomedia produktorekin konpondu, eta kendu egin zuten. Bere ama ere bai. Baina grabaketa hartaz oso oroimen onak dauzka. *‘Platora ez nintzen iritsi, nik nire eszenak Moralejako txalet batean eta jatetxe batean egin nituen, baina oso tratu ona izan genuen, bai profesionalki, bai ekonomikoki. Hango gutxiengak hemengo gehienak baino gehiago irabazten du. Aintzakotzat hartzen zaituzte, zure proposamenak entzun egiten ditu zuzendariak, denbora gehiago dago grabatzeko, eta zu gustora gelditu arte entsaioak egiten dira. Hemen da iritsi eta zenbat eta denbora gutxiagotan lan gehiago egin, hobe. Hemen tiranoak dira piska bat. Zu ez zara inor hemen. Haien esana onartzen baduzu jarraituko duzu barruan, bestela kanpora zoaz’.*

Hitz gogorrak dirudite, baina aktoreak bizi du halako anbiguitasun bat: telesaileko aurpeginik ezagunena da batetik, jendearen identifikazioa lortzen duena, baina enpresaren egiturako kate luzean bera katebegi ahula da. Negoziaketa baten orduan indar gutxi daukana. Lan beharrean dagoena beti da ahulagoa lana eskaintzen duena baino. Oreka bat aurkitzea izaten da kakoa; oreka bat, zure beharraren eta zor zaizun errespetoaren artean. ‘Duintasuna’ deitzen den oreka sinple eta zail bat: Horra aktorearen hamargarren oinarria.



Olatzko ermitan ezkondu zirenean,
duela 35 urte.

14 - MAITE DITUGU AKTOREAK?

Honako hau zioen Kontxuk Argia astekarian: 'Antzezleak herri honetan inoiz ez dira maitatuak izan. Sekula santan ez. Kirol mundua bai, baina antzezleena alferren mundutzat hartua izan da. Kuriosoa da, ordea, hemendik kanpora joan eta han aintzakotzat hartzen zaituzte, orduan zeozer bazara, baina bestela ez. Hemen aintzakotzat hartzea sinestezina da. Egia esan, gu une honetan Goenkaleko partaide bezala ezagutzen ari garena... hori ez da egia. Nirekin dabiltzanei esaten diet: Kontuz, hau bukatzen denean, hurrengo hilean, ez gara inor izango'.

Irutxulo aldizkarian zioen: 'Kanpoan izena lortuz hemen errespetoa daukazu, bestela ez'. Eta aurrerago: 'Pentsatzen dut Euskal Herria ez dela izan behin ere aktoreak maite dituen herri bat'.

Argian antzerkigintzatik bizitzea ezinezkoa dela esplikatzan zuen: 'Antzerkigintzaz ezin da bizi hemen, telebista behar da. Niri iruditzen zait hemen oraindik ez dela zirkuitu tajuzkoa lortu. Biztanleria handia daukaten herriak badaude; orduan, egon beharko litzateke jende multzo bat beti lanean antzerkia egiten, baina ez dago. Hor zerbait gaizki antolatuta dago'.

Goenkale hasi zen urtekoak dira deklarazio horiek. Ez dut uste Kontxuk maitasun gutxi jasoko zuenik Euskal Herrian, lehen ikusi ditugu adibide bakan batzuk. Baina norberaren sentipen propioetatik landa, orohar aktoreen egoeraz asko kezkatu izan da beti. Ez da ahaztu behar Antzertiren lehenengo promoziokoa dela; telebista jaiotzen ikusi zuen, euskaraz errodatutako lehenengo filmeak... Horrek guztiak zerbait berria zetorrela sentiarazi zion, aldaketa sakonak iritsiko zirela. Gaur egun hasten den batek bere bizitza konpontzea aski izango duen bezala, esan liteke Kontxuren garaiko aktoreak belaunaldi baten

moduan hezi zirela, belaunaldi moduan funtzionatu eta osatu zirela, gizartean eragina izango zuten itxaropenarekin. Agian eragin hori nahi zuten neurrikoa ez izateak pizten du, orain, arrangura moduko bat Kontxurengan, haietako askorengan bezala.

Horrekin batera, euskal antzerkiak dituen ajeetako beste bat aipatzen du Kontxuk: *‘Hemen aktoreok bi lan egiten ditugu’*. Hori esplikatzeko eskatu nion. *‘Ni konturatu naiz Goenkale herri txikietan ikusten den serie bat dela, hiriburuetan ez hainbeste. Baina aparte, euskal munduan asko erabiltzen dute euskara ikasteko. Euskaldun berri askok esan didate, eskerrak zuri euskera ikasten ari naiz, nonbait euskaltegian behartzen dituzte ikustera eta hurrengo goizean ikusitako zerbaiz kontatu behar dute, edo esaldi batzuek idatzi. Hori da gure Euskal Herriak daukan beste gauza bat: hemen antzezle bat irakasle lana egiten ari da, jendea alfabetatzen, eta niri amorrua ematen dit horrek. Ni ondo moldatzen naiz batua egiteko, irakaskuntzan ibili naizenez, baina gero nola eman herrikoitasuna pertsonajeari? Batua egiten hasten bazara, esaldi bakoitza ongi bukatuz, ondo ahoskatuz, arima kentzen diozu pertsonajeari. Nik nahi dudana da zure aitari eta amari egitea antzerkia, jende normalarentzat egitea, haiek entretenitu, beste helbururik gabe. Antzerkiaren jatorrizko funtzioa bete, negar eginarazi, barre eginarazi, funtzio pedagogiko edo linguistikorik gabe. Ikasleak fijatzen dira batek hika egiten duela, besteak zuka, besteak bizkaieraz, besteak ‘s’ eta ‘z’ gaizki erabiltzen dituela, eta gu ere, hori jakinda, agarrotatu egiten gara askotan, beldurtu’*.

Maite al ditugu gure aktoreak? Nola ez maite, hizkuntzaren egoera normalizatuta dagoen beste herrialdeetan hartu beharrik ez daukaten lanak ere euren gain hartzen dituztela ikusita? Ikusleen aldetik eduki dezaketen maitasun guztiarekin ere, ez da erraza Euskal Herrian antzezlea izatea.

15 - MARIA LUISA HILDA, KONTXU BIZIKO AL DA?

Hau esan zuen Kontxuk aldizkari batean: 'Miramonera heldu bezain laister Maria Luisa naiz egun guztirako. Badakit nire aurpegiak, nire ahotsak eta nire indarrak pertsonaiari laguntzen diotela, baina ez nuke bizi guztirako Maria Luisaren etiketarekin geratu nahi'.

Deian zioen: 'Agradecería que el próximo personaje que me ofreciesen fuese totalmente diferente'.

Niri ere aipatu zidan arrakastaren alderdi gaizto hori. *'Bestalde pena bat badaukat. Telebistan hainbeste denboran pertsonaje hori egiten egonda, ni enkasillatuta nago. Egia da demostratu dudala barre eginarazten ere badakidala, baina nik orain telebistan zer lan egingo nuke? Oso zaila izango da niri herriz telebistan horrelako paper bat ez eskaintzea. Lantokiak enkasillatu egiten gaitu denok, eta gure munduan, segun eta zer lan egiten duzun, segituan esaten dute 'horretanxe funtzionatzen du andre horrek ondo'. Hau penagarria da aktore batentzat, baina beste erremediorik ez dago, ezin da ihes egin hortik'.*

Beldur eta kezka hauen harira beste aldizkari batean irakurri niona datorkit gogora. 'Etapan izan zen. Kontxuk orduan 52 urte zeuzkan, eta galdetzen zioten ea bere bizitzako zein unetan zegoen. 'Estoy en una etapa un poco extraña, es una edad rara. Por una parte el reconocimiento personal y profesional, y por otra parte te vas encontrando un poco gorda, un poco fea'.

Orain 5 urte gehiago dauzka, eta neuri ere aipatu zizkidan denboraren igarotzeak dakarren moldatu-beharrak sortzen dituen ikarak. *'Lanak erne mantentzen du zure burua, baina urte batzuek badaude orain, eta ni urte horietan sartzera nihoa, plost geratzen zarena, esanez, bueno, hots egin diezadatela, eta ikusiko dut. Baina ez zara mugitzen ezertara, moteldu egiten zara'.*

Kontzientziaz bizi du oraina Kontxuk, eta gauzak bere lekuan jarri eta aztertzeko ahalmen harrigarria ageri du. *‘Ulertzen dut deskantsuak inportanteak direla, hau estresantea da askotan, nerbioak airean edukitzen dituzu, askotan gainezka ere egiten duzu, histeria sortzen da batzuetan, birao bat botatzen duzu, kristorenak esan ere bai, azkenean negarrez bukatu ere bai, baina gero baretzen zara, eta barkatu esan, pasatu zait eta benga, hasi lanean. Pazientzia ere batzutan asko daukat, baina beste batzuetan lehertu egiten naiz. Igual ez naizelako hotza izango, eta orain aldatzea zaila izango da’.*

Bere ahulaldiak agertu ondoren, ezin ordea urte peligroso hauen baitan nolako etorkizuna ikusten duen aztertu gabe utzi. *‘Aktore batek beti eduki ditzake paperak, bizitza erakusten den momentutik zaharrak ere bizitzaren zati direlako, baina zuk fisikoki ondo egon behar duzu horretarako. Telebistan errazagoa da lana egitea, errepikatzeko aukera daukazu, eta beste gauza asko. Orain, antzoki batean, zahartu eta gero oso zaila da lana ondo egitea. Gazte batek, zaharrez disfrazatuta, hobeto egingo du benetako zahar batek baino. Kapazidadea galtzen duzu, memoria, indarra, garbi ahoskatzeko ahalmena, antzerkiak epe bat dauka. Niri esaten didatenean ‘jo, esa actriz, tan mayor y hay que ver la energia que tiene’, niri pena ematen dit halako aktore zahar bat ezinean dabilela ikustea, batzuek belarrian pinganilloa daramate, handik testua entzuteko. Neure burua ez nuke horrela ikusi nahi. Lanik gabe geratzea ere ez da ederra. Nik, neure burua kapazidadearekin ikusten badut eta lanean jarraitzeko modua badut, jarraitu egingo dut’.*

Kontxu ez du beldurrak, hala ere, gauzak nola diren ez ikusteraino itsutzen; garbi dauka egin beharrekoa. *‘Orain, nekatuta sentitzen banaiz, ezin baldin badut, erretiratu egin beharko dut. Neure burua Rafaela Aparicio bezala ez nuke ikusi nahi, Euskal Herrian antzerkia egiten zahartuta’.*

Eta behin ispiluaren aurrean jarrita, jarraitzen du etorkizunari, eta iraganari, argitasun guztiz aurrez-aurre begira. *Ni kontziente naiz nere urterik onenak eman ditudala lanean. Telebistan, burua ondo badaukat, fisikoki ondo banago, eskaintzen badidate lanik jarraituko dut tirrikitarra, ez dut esaten ardura handiko gauzak egiten, baina gustatuko litzaidake zerbait egiten jarraitzea. Etorkizuna Barbara Goenagak dauka, esate baterako. 19 urte, txiki-txikitatik lanean hasia, telebistara joan da, zinea eskaini diote, antzerkirako ahalmena badauka. Baina nik, 57 urterekin... igual oraindik lan dextente aterako zait, baina ez dago jakiterik'.*

Eta bere autoargazki hau amaitzera doanean, begiak pizten zaizkio berriro. Zer okurritu ote zaio? *Hori bai, proiektu berri batekin ilusionatzeko beti prest egoten naiz. Bat dagoenean, orduan dena jartzen dut, buru-belarri sartzen naiz, eta naizen dena ematen dut. Zoratzen egoten naiz'.*

Hamalau urterekin egin zenuen lehenengo obra hartan bezala?

'Bai, lehenengo balitz bezalaxe'.



Azpeitiko tanborradan kantineira bezala, 1962an. Ezkerrekoa da.

16 - POLITIKOAK, KONPLIKAZIOAK, KONPONBIDEAK

Egunkarietako bi orri dauzkat mahai gainean, 2001ekoak biak. Bata martxoan argitaratua da: 'Hitzarmeneko giroa irudietan'. Bertan EAJk eta EAK lortu zuten akordioa aurkezteko antolatu zen ekitaldiaren berri ematen da. Kursaaen izan zen. Mila bat lagun bildu ziren. Hiru argazki datoz, eta horietako bitan Kontxu ageri da. Batean Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiarekin hizketan ari da. Bestean, Ibarretzek Martin Ugalde agurtzen duen bitartean, Kontxu begira dago.

Bigarrena bi hilabete geroagokoa da, maiatzeko hauteskunde bezpera ingurukoa. 'Destacados representantes de la sociedad guipuzcoana dicen...' dio orriak, eta gero, hizki handietan: 'SI a Ibarretxe'. Ibarretxeren argazkia dator erdian, eta bere inguruan beste zortzi argazki txiki. Horietako batean Kontxu ageri da, Pedro Otaegiren ondoan. Kontxuk txanpain kopa bat dauka eskuetan eta Pedrok ardoa.

Bost urte lehenago, 1996an, Elkarriren aldizkarian elkarrizketa luze bat egin zioten Kontxuri, eta bertan oso kritikoa ageri zen politikoekin, eta zentzu handiko gauzak esaten zituen: 'Nik uste herri honetan gertatzen den gauzarik larrienetakoa zera dela, "inplikatu zaitetz, inplikatu zaitetz...", bazter guztietatik entzuten duzu. Ni nekatu egin naiz. Beraz nik zera diot: "Zer egiten du horretarako dagoen jendeak? Gauzak zuzentzeko jarri ditugun ustezko profesional horiek? Hemen, herri honetan, baztuk titulurik ez badute ezin dituzte zenbait lan egin; ez dute balio eta baztertuak izaten dira. Orduan, zera esaten dut nik: "Zer egin behar dugu, jende pila bat hortik bizi denean gauzak nola zuzendu jakin gabe eta gu inplikatzeko eskatzen digutenean?" Gu geure neurrian inplikatu gaitetzke. Ni nere lana ahalik eta zuzenena egiten saiatuko naiz, baina hortik aurrera nik ezin dut besterik egin, eta ez dakit gainera nahi ote dudan'.

Aurreraxeago dio: 'Frankismoaren bukaeran egundokoak egin behar genituelakoan geunden, baina gauza bakarra dago garbi orain; hemen kargu bat lortuz gero... "sanseakabo!'

Eta beste galdera bati erantzunez: 'Siloietan badago pegamentu bereziren bat, zerbait latza izan behar du horrek, behin horra iristen direnean inork ez baitu hortik irten nahi'.


Deklarazio hauen eta bi lehendakariren ondoan ageri den argazkien artean egon zitekeen kontraesana argitu nahi nuen. Agian bere iritzi politikoak aldatu egin ziren; agian bizitza sozialaren zati bezala hartzen du politika ere... Kontxuk ez dio ezeri ezetzik esaten, eta honela espikatu zidan auzia: *'Lehendakariekin ageri naizen bi ebento horietara momentu berezia zelako joan nintzen, abertzaletasunaren etsaiak eraso gogorra jotzen ari baitzitzaizkigun. Bestalde, EA eta EAJ lehengo aldiz bateratuta joan ziren. Politikoak beti hurbildu izan zaizkit, beti bota izan dizkidate tejoak beraien alderdietara hurbiltzeko. Egia da oso asekieblea naizela, baina ni ez naiz ahalegindu inorekin. Kursaalera ekitaldira EAko lagun batek bereziki Gasteiztik deitu zidalako joan nintzen, berak eskatu zidalako. Joan nintzen eta Ardanzen ondoan jarri ninduten. Gero seme-alabek egunetan jardun zidaten bromatan, ez didate barkatzen, erabili egiten nautela esaten dute. Beste batean produktora batek obligatu ninduen, baina beste leku askotara ez naiz joaten. Inbitazioak sarritan hartu izan ditut baina ez naiz joan izan. Ez dago denetara joaterik'.*

Kezka politikoak barru-barruan bizi ditu, Euskal Herriaren egoerak nahigabetzen du. Oso erreta dago politikoeekin, 'bi zaplamoko emango nizkieke' esateraino. Bere burua ezkertiarzat definitzen du, eta agian itxaropen handiagoko garaietatik datorrelako dauka orain halako etsipena. Elkarri aldizkarian zioen: 'Gaztetan esponja bezala azaltzen ginen talde politikoeekin edo jakinduria politiko piska bat zeunarekin. Dena jaten genuen eta gero jandakoaren hausnarketa egiten genuen, baina guzti hori bukatu zen eta ez dut uste herri honen kezken inguruan inor lan pedagogiko bat egiten ari denik, hau da, zein garen, zergatik gauden hemen, merezi al duen, eta abarren berri ematen. Erantzunik ez dago'.

Horregatik, agian, nahiago du beste 'ebento' sozial batzuetara joatea, Sagardoaren Kofradea izendatu zuten bazkarira, esate baterako.

Txakoliñaren pregoilaria ere izan zen. *Horietara gustorago joaten naiz, jendea beste era batera hurbiltzen zait eta gustora egoten naiz. Urtero-urtero gonbidatzen nauten denetara ez naiz joaten, denetara joango banintz atean sartu ezinik geratu nintzateke, jatea asko gustatzen baitzait, baina saiatzen naiz erantzuten. Kilometroak eta horrela-koetara joan izan naizenean, ezin izaten nuen pausorik eman, jendea gainera etortzen zitzaidan'.*

Politika interesatu bai, baina nahiago du jende xehearen lagunarte gozoagoan egotea.



Tunezera egindako bidai batean.

17 - KONTXUREN SEKRETARIO PRIBATUA

Ez dakit sekretua den edo ez, baina Kontxuk badauka idazkari pribatu bat, berarentzat bakarrik. Gizon dotore bat, bibote sendoduna. Urteak eta urteak daramatza Kontxuren ondoan, haren asunto guztiak zaintzen, bideratzen, txukuntzen, eta aholkuak ematen. Berak utzi zizkidan hemerrotekako dosierrak, Kontxuri telebistan egindako elkarrizketen bideoak, argazkiak, kurrikulumerako datuak, eman dizkioten sarien zerrenda, bidaietan bisitatu dituen munduko bazterren zerrenda...

Emakume hau ondo-ondo ezagutzen duela dirudi. Askotan ikusi omen dituzte elkarrekin, kontatu dit Donostiako kazetari lagun batek. Argazkietan ere, elkarrekin daude askotan, baita herrialde urrunetara egindako bidaietako argazkietan ere. Idazkariarekin ageri da Brasilen, Mexikon, Laosen, Parisen. Ez al da konfidantza gehiegi? Nor da Kontxuren idazkari partikularra?



Azpeitiko lagunek eman zioten sorpresa bat, telebistara bertara joanda.

18 - ERREFRAUA JAR DEZAGUN HANKAZ GORA

Kontxuren idazkaria bere senarra da, Imanol Zinkunegi. Publizitatearen munduan lana egindakoa urte askotan, jendearekin tratzen ikasi zuen, eta Kontxu bezalako 'titiritera' batentzat lagun ezin hobea bihurtu zen, edonora joateko ere. Gaztelerazko errefrau klasikoak dio gizon boteretsu bakoitzaren atzean emakume handi bat dagoela; Kontxuren kasuan alderantziz esan genezake. Hala dio Kontxuk: *Ni oso arduragabea naiz, neure paperik ez dut gordetzen, fetxak ez ditut jakiten. Kristoren parentesiak dauzkat nire memorian, boladak izan ditut ezta zenbat urte neuzkan ere ez nekienak, 37 al dauzkat? 38?, galdetzen nion neure buruari, eta kalkulatu egin behar izaten nuen. Nire senarra gordetzen ibili izan da beti nire materiala. Apoiatu ere beti apoiatu nau, beti bultza izan nau, berak beti ikusi izan du nire bizitzaren erdia antzerkiaren mundillo horretan zegoela. Leku guztietara berarekin joaten nintzen, baita Donostiako Zinemaldira ere'.*

Baina Zinemaldikoa bukatu zen, lehen birentzako ziren gonbidapenak gero bakarrarentzat bidaltzen hasi baitziren. Geroztik ez da Kontxu gehiago joan. Ez bakarrik joateko ahalmenik ez daukalako; lasai asko. Baina euskaldunei gonbidapenak murriztu zaizkien bezala, kanpokoek jarraitzen duten euren bikoteekin, seme-alabekin eta familiarekin etortzen. *Truditzen zait oso errekonozimendu gutxi daukagula euskal aktoreak zinemaldiaren partetik. Lola Floresen alabak amantearekin, etxekoekin, suegroarekin eta denekin etortzen dira, eta guk ezin dugu ezta gure senarra ere eraman. Guri gaizki ez gelditzeagatik deitzen digute. Horretarako ez deitu. Amorrúa ematen dizu, ze joan eta gainera eskerrak ematen egon behar duzu. Estrenoko filme bat denean ere, han doaz politikoak beren emazteekin, koinatarekin, eta guretzat ez dago sarrerarik. Gauza lotsagarriak gertatzen dira zinemaldian. Hemen euskerazko zineagatik lana egin zutenei inori ez zaie inbitazio bakar bat bidaltzen, hori non ikusten da? Zinemaldia espainolista hutsa da. Eta bestela izan behar duzu denei ipurdia garbitzen ibiltzen*

den bat, joan eta zuretzako pase bat erreguka belauniko jarrita eskatu behar duzu. Badaude aktoreak horretan ibiltzen direnak, 'o, nik pase bat daukat' esanez. Nik ezin dut hori sufritu, zeure buruari diozun errespetoagatik'.

Gera bedi azken kexa hau Zinemaldia antolatzen dutenentzako. Bidezkoa iruditzen zait, antzezleen ofizioa hainbeste maitatu eta ofizio horren gora-beherak hain ondo ezagutu eta arazoak nabarmentzen dakien gure antzezlerik ezagunetako baten aldetik. Horrelakoa da Kontxu. Tarteka barrutik Maria Luisa ari zaiola hizketan dirudien gure Kontxu. Urte asko daramatzate elkarrekin. Urte asko daramatzate gurekin. Bere pertsonai ugariek, baina batez ere Maria Luisak hunkitu dituen ikusle guztien izena lerro hauetara ekartzen ausartuko naiz, eman digun gozamenagatik eskerrak emateko eta omenaldi bat eskaintzeko. Liburutxo hau baino omenaldi handiagoa merezi duela jakinda ere.



Bere biloba zoragarriak, Beñat eta Ander.

19 - KONTXU ODRIOZOLA BESTEEN AHOTAN

‘Ene! Zurekin adina ez dut beste inorekin hitz egin!’, esan zidan Kontxuk gure elkarriketak bukatu genituenean. Baina nik badakit gezurra dela. Kontxu lagun-maitea da, lagun artean ibili beharrekoa, eta berarentzat ez dago afari ondoreneko tertulia bat baino gauza gozo-agorik. Guk bost ordu grabatu genituen guztira, Hotel San Sebastianen kafea hartuz eman genituen uztaileko arratsalde haietan. Zenbat ordu gehiago ez zituen pasatuko Kontxuk lagun arteko tertulietan?

Baina Kontxuri, kapitulu honetan, entzutea tokatzen zaio. Edo hobeto esanda, irakurtzea. Ea berari buruz zer dioten besteek, bere inguruan lana egindakoek, bere lana aztertu dutenek. Ni neure grabagailuarekin iritsi baino lehen Kontxuren bizitza, izaera, jenioa eta abarrrak ezagutzen zituzten horiek.

Lau pertsonen testigantzak bildu dizkizuegu ondorengo orrietan. Honako hauek dira: Pedro Otaegi, ‘Eusebio’ postaria Goenkalen, aktorea eta herrikidea; Arantxa Gurmendi, Goenkaleko ‘Hortentxi’, aktorea; Roberto Herrero, antzerki kritikoa ‘El Diario Vasco’ egunkarian; eta Mikel Garmendia, Goenkaleko ‘Joxe Mari’, aurkezpen beharrik gabeko aktorea.

Haien ordu askotako Kontxuren ezagutzak boro-bilduko du gure bost orduren ondorengoa den liburu hau.



Goenkaleko irudia.

KARAKTER HANDIKO EMAKUMEA

- *Pedro Otaegi* -



Kontxu eta ni etxepe berean hazitakoak gara. Ni Beizaman jaio nintzen, baina Azpeitira etorri ginen bizitzera. Kontxu hemen jaio zen. Ni bera baino zazpi bat urte zaharragoa naiz, eta umetan edade hori alde handia da. Gainera, garai hartan ez zen gaur bezala, orain neskak eta mutilak lagun ibiltzen dira. Lehen neskak neskekin ibiltzen ziren, eta mutilak mutilekin. Kontxuren lagunak gure etxepean lau ziren: Rosarito Borda, Mari Carmen Borda, Mari Sol Odria eta nere arreba Mari Carmen. Umetan harreman gutxi izan dugu

elkarrekin. Gure arrebak esaten du umetan ere Kontxu animatzen zutela antzerkia egitera, eta hark bai egin ere. Artista omen zen ume-umetatik.

Nik Kontxurekin traturik gehiena Goenkalen hasiz gero izan dut. Gainera berari esker nago ni Goenkalen. Ni Antxieta talde amateurrean ibilia naiz hamar bat urtetan, eta Kontxuk bazekien nere berri. Goenkale hastera zihoala, Kontxuk entzun zuen bulegoan pertsonaje bat falta zutela: postaria falta zuten. Eta pentsatu omen zuen: 'Hau Pedrok ederki egingo luke ba'. Eta produktorakoei esan eta niri deitu zidan: 'Probatuko al zinake?'. Joan nintzen, eta Andu Lertxundik egin zidan proba bat, kasting bat, eta onartu egin ninduten.

Kontxu karakter handiko pertsona da, baina ojo, ez da Maria Luisa.

Maria Luisa insoportablea da, eta Kontxu, aldiz, oso atsegina da, zer nahi duen dakiten horietakoa, eta bere lana ondo egiten duena, oso arduratsua da. Marrazten oso ona da. Haien aita zen oso ona horretan, tailagilea ere bai bikaina. Kontxuren gidoiak ikusi egin behar dira gero! Bere testuetan, ikusten badu 'etxera joan nintzen' esaldia, etxe hori gogoratzeko etxea marrazten du alboan. Idea nagusiak marraztu egiten ditu ondoan, eta horrela hobeto oroitzen ditu. Haren gidoi denak marraztuta egoten dira.

Oso profesionala da lanean, gidoiak ikasi gabe lotara joaten ez den horietakoa. Kontxuri, grabaketa egunean sekuentzia asko ematen dizkiote beti, sei sekuentzia, zazpi, bost sekuentziako egunak asko izaten ditu, eta horiek denak ikasteko asko jardun behar du. Umorerik ez du galtzen lanean, eta oso ambiente ona egoten da haren inguruan. Batzuetan piska bat kezkatuta etortzen da sekuentzia horiek direla eta.

Kabreatuta ere egon ohi da, nik uste ez dela pertsona normala noizbait bere onetik ateratzen ez dena, pertsonak behar du jenio piska bat. Akuilua sartzen diotenean hura ere berotu egiten da.

Batzuetan aipatzen du umorezko paper bat ere gustora egingo lukeela, komedia, alegia, baina jendeak horrelaxe ikusi nahi du, Maria Luisaren paperean, haserre, oinazez beteta. Behin, Goenkaleren argumetoaren baitan, bidali zuten Loiolara ejerzizioak egitera, eta goxogoxo bueltatu zen, eta jendea segituan aspertu zen Maria Luisa zintzo harekin.

Juergan ere ederra da Kontxu, lagun artea asko gustatzen zaio.

ASPALDIKO LAGUNA

- Arantxa Gurmendi -



Urteak dira Kontxu eta biok elkar eza-gutu genuela. 1981ean izan zen, eta nola ez, zitekeen lekurik aproposenean. Bakoitzak gaztetandik bere ibilbidea egin ondoren antzerki munduan, Kontxuk Azpeitian eta nik Donostian, biak hogeita hamarretik gora, ezkonduak, eta ama izan ondoren, nola egingo genion uko, bizitzak eskeintzen zigun aukera paregabeari, hain zuzen, gure antzezle grina bete-betean asetu zezakeen zerbaiti. Halaxe, Antzertin (Eusko Jaurlaritzak sortutako antzerki eskola)

egin genuen topo. Han igarotako urteetako egun eta ordu guztiak ditut gogoan, Kontxuk ere izango dituen bezala. Bertan lanean jarduteak irakasle zein baino zein hobeagoekin, eta zortzi orduz egunero interpretazio munduaren magia horretan murgiltzea esperientzia handia izan zen. Zorionez, urte batzuek igaro ondoren, berriro elkarrekin lana egitea suertatu zaigu Goenkalen, eta ohitura onak ez galtzeko, gure artean segitzen dugu ikasitakoa praktikan jartzen: elkarri kritika egiten, elkarri aholkuak ematen, elkarri laguntzen; nolabait, eskolako izpiritu positiboa erabiltzen. Kontxuk eta biok puntu asko ditugu bat datozenak, biak gara aktorea trajikoak, baita komedian moldatzen garenak ere, profesioa maite dugu, eta berandu iritsi arren profesio horretatik bizi izateko aukerari ez diogu ez, uko egin. Behin bere alaba gazteenak, Larraitzek, nire seme-txoarena egin zuen antzerki obra batean. Ondo konpontzen gara eta elkarren konfidantza dugu. Kontxuren onena galdetuz gero, interpretatzeko bere tenperamentua eta indarra direla esango nuke eta txarrena... behar bada, batzuetan azaltzen duen jenio petrala eta pazientzia falta.

Dena den, Zorionak Kontxu! Nire lagun min bati horrelako omenaldia egiteak benetako ilusioa egiten dit.

NIRE ADISKIDE MINA

- Mikel Garmendia -



1982ko udako egun hartan, aktore izateko egin zen deialdira bildu ginenon artean gehienak gazteak ziren, nire asmo berberekin bertara bilduak, eta nire lehendabiziko asmoa ihes egitea izan zen. Hala ere, bertan zeuden gizonezko guztiak ni baino askoz gazteagoak ziren arren, jabetu egin nintzen bazeudela aktore izan nahi zuten emakumezko batzuk, gutxi gorabehera nire adinekoak, eta horrexegatik erabaki nuen bertan geratzea. Emakume haien arteko bat zen Kontxu; horixe izan zen gure lehendabiziko harremana. Hamaika ikusita gaude orduz geroztik, baina gure lan harremanak eta gure adiskidetasunak ez dute etenik izan urte luze hauetan.

Izan ere, hainbestetan lanean elkarrekin aritzeaz gain, Kontxu nire adiskide mina izateaz harro nago. Gure pertsonaien larruan sarturik, sarritan era askotako arazoak izan ditugu: eztabaidak, gorrotoak, erre-sumina... Baina gure benetako bizitzan ez dut uste izan dugunik minututik gora iraun duen tirabirarik.

Ez diot inori deskubrituko Kontxuk aktore moduan dituen dohaiak. Berak egin dituen pertsonaia guztiak talentuz eta aktore moduan dituen errekurtsu ugarienez jantzi ditu. Baina nik Kontxuren beste ezau-garri nabarmen bat aipatu nahi nuke: bere erabateko profesionaltasuna. Litekeena da eskaini dioten lanen bati uko egin izana (behin baino gehiagotan egin du), baina interpretatu dituen pertsonaia guztiei bere arima, bihotza eta bizitza bera ere eman diela ziurtatzen dizuet. Eta hori, Kontxuren kasuan, asko ematea dela esan dezaket.

Kontxuren ondoan momentu ahaztezin asko bizi izan ditut. Lanen bat elkarrekin prestatzen aritzen ginenean sentitzen genuen beldurra. Vic-en hilabetea eman genuenean, adibidez, Strinberg-en 'Herio dantza' ikuskizuna prestatzen, lanean aritu eta gero benetako senar-emazte moduan aperitiboa hartzera ateratzen ginen egun haiek; ebaketa larri batetik oraindik ere erabat osatu gabe nengoela, hilabete hartan bere laguntasunak eman zidan bizipoza ez dut sekula ahaztuko eta bizitza osoan sentituko naiz eskertuta.

'Ama begira zazu' egin genuenean ere, graziaz betetako lerro haiek itxuratzen ari ginen bitartean sentitu genituen zalantzak eta beldurrak (Elenak eta zuk 'txorakeriak' esaten zenuten) ere ez ditugu erraz ahaztuko. Euskal antzerkigintzak ezagutu duen arrakastarik handiena izatera iritsi zen, sekulako arrakasta, eta, neurri handi batean, Kontxuren talentuari eta bere lanbidearen zirrikitu guztiak horren ondo ezagutze-ari zor zaio.

Aktore moduan egin duzun lan bikaina saritua izateko unea iritsi zaizu. Honen atzetik gehiago egongo direla desio dut, eta badakit hala izango dela; eta aizu, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula norbera bere herrian errekonozitua izatera iristea. Baina badakit zuk baino gehiago irabazi dutela eta irabaziko dutela zure herritarrek, zutaz harro dauden azpeitiar guztiek.

Zorionak bihotzez, Kontxu! Eta bejondeizula! Maite zaitut.

UNA ACTRIZ DE RAZA

- Roberto Herrero -



Hay actores y actrices con cierta edad y mucha experiencia detrás que cuando les hacen un homenaje empiezan a pensar si no será que les quieren retirar. No creo que Kontxu tenga esa sospecha, aunque quizás este reconocimiento sirva también para que eche la mirada atrás, posiblemente a aquellos años de profesora, cuando ella ya tenía claro que quería ser actriz. O mejor dicho, que quería salir a un escenario, porque actriz, actriz, me parece que Kontxu lo ha sido, y lo será, siempre.

No son estas líneas lugar para hacer semblanza de su carrera, más bien para recoger algunas sensaciones que esta mujer deja a su paso, paso firme por cierto. Con Kontxu tengo la sospecha de que, al menos hasta el momento, hemos perdido la oportunidad de ver a la actriz que de verdad lleva dentro. No es que no hayamos podido verla en teatro, poco, es cierto; o últimamente en televisión, donde ha conseguido una popularidad capaz de poner a su personaje de Goenkale, Maria Luisa, por encima de Kontxu. Pero creo que le han faltado otras oportunidades, ha faltado que algunos directores de casting repararan en esta mujer de físico imponente y alma de cristal.

No está ni mucho menos el panorama actoral español sobrado de actrices de la edad, experiencia y presencia de Kontxu como para prescindir de una actriz de raza, de corazón, posiblemente más dada a la intuición que a la técnica, pero que es capaz de transmitir porque lo que

hace le sale de bien dentro. Cuando la vemos actuar nos creemos lo que nos cuenta porque la sinceridad en el escenario, o en el plató televisivo y cinematográfico, tiene mucho que ver con la propia sinceridad de la persona. Y cuando Kontxu te habla de su trabajo, se le ilumina todo, las alegrías y también ciertas decepciones que han ido quedando por el camino.

Espero que este reconocimiento sirva también para que en ese hipotético repaso a su vida profesional que significa todo homenaje, vea que le queda aún un enorme camino por recorrer. Y que si lo hace, como hasta ahora, con su habitual humanidad, vaya por donde vaya, ya habrá ganado mucho. Y con ella también la gente que la admiramos. Zorionak, Kontxu.



Goenkaleko irudia.

KURRIKULUM BATERAKO DATUAK

AFIZIONATU MAILAN EGINDAKO LANAK:

✻ ANTXIETA kamarako abesbatza mixtoaren partaide hiru urtez. Musika polifonikoa kantatzen zuten.

✻ Sei antzerki obra taularatu zituzten.

✻ Herri Irratian gidoiak eszenifikatu zituen.

✻ Donostia eta Loiolako Herri Irratian 60 programetan hartu zuen parte, talde-lanean gidoiak idazten, eszenaratzen eta aktuatzen.



Goenkaleko irudia.

ANTZERKI AMATEURREAN EGINDAKO LANAK:

✿ 'TROIARRAK', bi aldiz, Iturri eta Pols zuzendariekin. Hecuba pertsonaia egiten zuen.

✿ 'ARLEKINO', zuzendariaren laguntzaile.

✿ 'SEIS PERSONAJES EN BUSCA DE AUTOR', amaren pertsonaia.

✿ 'BERNARDA DE ALBA', amonaren pertsonaia.

✿ 'JUAN GABRIEL BORMAN', Gumilda-ren pertsonaia.

✿ 'ZOO DE CRISTAL', Amandaren pertsonaia.

✿ 'MARAT SADE', pregoilariaren pertsonaia.

✿ 'UN TRANVIA LLAMADO DESEO', Blanche-ren pertsonaia.

✿ 'LOS FUSILES DE LA MADRE CARRAR', auzoko emakumearen pertsonaia.

ANTZERKI PROFESIONALEAN EGINDAKO LANAK:

✿ 'HERIO DANTZA', Strindberg-ena, Luis Solak zuzenduta. Aliziaren pertsonaia.

✿ 'ASPIRINA PARA DOS', Woody Allenena, Jokin Cuetok zuzendua. Alanen emaztearen pertsonaia.

✿ 'PIPIN', Swartz-en obra musikala, Jokin Cuetok zuzendua. Berta amonaren pertsonaia.

✿ 'AMA BEGIRA ZAZU', gidoilaria eta sei pertsonairen antzezlea. Eneko Olasagastik zuzendua.



Goenkaleko irudia.

ZINEAN EGINDAKO LANAK:

✻ Hainbat laburmetrai zuzendari hauekin: Juan Migel Gutierrez, Julio Medem, Koldo Losada...

✻ 'ALBANIAREN KONKISTA', Alfonso Ungriak zuzendua. Bigarren mailako paper bat.

✻ 'GERRA KARLISTEN KRONIKA', Jose Anjel Tudurik zuzendua. Bigarren mailako papera.

✻ 'HAMASEIGARRENEAN AIDANEZ', Anjel Lertxundik zuzendua. Protagonista.



TELEBISTAN EGINDAKO LANAK:

- ✻ 'BAI HORIXE', euskara ikasteko programa.
- ✻ 'HERRIKO PLAZA', lehiaketa.
- ✻ 'FLAMINGO BERRIA', telesaila.
- ✻ 'GOENKALE'.



JASOTAKO SARIAK:


✻ 'HOTEL ERZILLA' antzerki saria, Ama Begira Zazu-rengatik.

✻ 'ARGIA' saria.

✻ 'EAB-REN SARIA', Euskadiko Aktoreen Batasunak telebistako aktore onenari emandakoa.



Goenkaleko irudia.



E U S K A L
A N T Z E R K I
T O P A K E T A K

AZPEITIA

ARGITARATU DITUEN LIBURUXKAK

- 1990 • ANTONIO MARIA LABAIEN eta EUSKAL ANTZERKIA.
- 1991 • TORIBIO ALZAGA heriotzaren 50. urtemuga.
- 1992 • LÉON LÉON.
• ANASTASIO ALBISU.
- 1993 • ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA.
• ARKOTXA ANAIAK EUSKAL ANTZERKIAN.
- 1994 • KATALINA ELEIZEGI.
"GARBIÑE".
• EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN.
María Arizmendi / Juanamari Malhariau / Miren Arrizabalaga.
- 1995 • IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU (1922-1984).
Antzerkigilea.
- 1996 • XABIER LIZARDI (1896-1933).
Antzerkiak: Laño ta Izar.
Bi aizpak.
Ezkondu ezin ziteken mutilla.
- 1997 • PIARRES LARZABAL CARRERE, OROITUZ.
• AITA JOSE ANCHIETA (S.J.) Dohatsua.
- 1998 • A. ARZELUS eta A. M^a LABAYEN.
Belaunaldiko antzerkilariak.
- 1999 • NEMESIO ETXANIZ.
Teatrozaleen gogoan.
- 2000 • GABRIEL ARESTI SEGUROLA.
Euskal Antzerkian, Biola eta mailuarekin.
- 2001 • MIKEL GARMENDIA
Antzerkia zainetan.
- 2002 • KONTXU ODRIOZOLA
Antzerkia bizitzaren edergarri.